

Arantxa Urretabizkaiak bidean ikasia

Sekuentzia honetan honako ariketak egingo dituzu:

- Elkarrizketa entzun bitartean, erantzun zuzena aukeratu.
- Entzungaiko hiztegia landu.



Bidean ikasia: aukeratu erantzun zuzena

Elkarrizketa entzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.



Zein da, Urretabizkaiaren ustez, desfilea izanek ekarri dion ondoriorik gogorrena?

- Askok etsaitzat hartu zutela
- Isolamendu-gela batean sartu zutela
- Herritar askori txarto iruditu zaiola desfilea izana

Zergatik bihurtzen ditugu sarritan euskaldunok besteak etsai?

- Azpikeria bat egin digutelako
- Iraindu gaituztelako
- Iritzi ezberdina dutelako

Autorearen arabera, liburuaren mamia da...

- bere iritzia inposatzea
- hausnarketa
- emakumeak goraiatzeari

Zer ikasi du bidean Arantxa Urretabizkaiak?

- Gorrotoari aurre egiten
- Antzerki-obrak idazten
- Herritarrak miresten

Urretabizkaiak Hondarribian desfilea baino lehenago...

- bazekien koadrilak apurtuko zirela
- ez zekien non ari zen sartzen
- bazekien gorrotoa nagusituko zela

Nork eragotzi dio Arantxaren konpainiari desfilea?

- Ertzaintzak
- Gizonek
- Emakumeek, gizonek eta Ertzaintzak

Urretabizkaiaren arabera, alardea pribatizatzerakoan udalak...

- alde baten alde egin zuen
- gizonezkoen alde egin zuen
- emakumezkoen alde egin zuen

Honi guztiari buruz...

- liburu gehiago idatziko dira
- ez da libururik idatziko
- istorio-liburuak idatziko dira

Bidean ikasia: sinonimoak lotu

Entzun berri duzun elkarrizketako zenbait hitz landuko dituzu orain. Erreparatu beheko esaldietan kurtsibaz idatzitako hitzei eta lotu baliokidearekin.

Transkripzioan

Hondarribiko kaleetara atera ziren alardean desfilatzeko eskubidea *aldarrikatzera*

Bilakatu gaituzte etsai.

Niretzat liburuaren mamia *hausnarketa* da

Sukalde hartan *aritu* ginen plantxatzen gure arropak

Ikasi dut *eragozpenen* aurrean eusten

Pertsona batek esatea alardearekin jakin duela zer den benetako beldurra *deigarria* egiten da

Bihotzaren abiadura *bizkortzen* da pila bat

Hau galderau *akaso* ez da erraza

Baliokidea

harrigarri

erreibindikatu

beharbada

gogoeta

oztopo

jardun

azkartu

bihurtu

Zuzenketa-orria

Bidean ikasia: aukeratu erantzun zuzena

Zein da, Urretabizkaiaren ustez, desfilatu izanak ekarri dion ondoriorik gogorra?

Askok etsaitzat hartu zutela

Zergatik bihurtzen ditugu sarritan euskaldunok besteak etsai?

Iritzi ezberdina dutelako

Autorearen arabera, liburuaren mamia da...

hausnarketa

Zer ikasi du bidean Arantxa Urretabizkaiak?

Gorrotoari aurre egiten

Urretabizkaiak Hondarribian desfilatu baino lehenago...

ez zekien non ari zen sartzen

Nork eragotzi dio Arantxaren konpainiari desfilatzea?

Emakumeek, gizonek eta Ertzaintzak

Urretabizkaiaren arabera, alardea pribatizatzerakoan udalak...

alde baten alde egin zuen

Honi guztiari buruz...

liburu gehiago idatziko dira

Bidean ikasia: sinonimoak lotu

Transkripzioan

Hondarribiko kaleetara atera ziren alardean desfilatzeko eskubidea *aldarrikatzera*

Bilakatu gaituzte etsai.

Niretzat liburuaren mamia *hausnarketa* da

Sukalde hartan *aritu* ginen plantxatzen gure arropak

Ikasi dut *eragozpenen* aurrean eusten

Pertsona batek esatea alardearekin jakin duela zer den benetako beldurra *deigarria* egiten da

Bihotzaren abiadura *bizkortzen* da pila bat

Hau galderau *akaso* ez da erraza

Baliokidea

▶ harrigarri

▶ erreibindikatu

▶ beharbada

▶ gogoeta

▶ oztopo

▶ jardun

▶ azkartu

▶ bihurtu

Transkripzioa

Bidean ikasia: aukeratu erantzun zuzena

MAITE ARTOLA.- 1996ko irailaren 8an hogeita sei emakume Hondarribiko kaleetara atera ziren, Titi-biliti doinu hauei jarraituz, alardean desfilatzeako eskubidea aldarrikatzera; tartean zu, Arantxa Urretabizkaia, egun on.

ARANTXA URRETABIZKAIA.- Bai, tartean ni.

M.A.- “Oraindik ere ordaintzen ari gara erabaki hura” idatzi duzu Pamielaren eskutik kaleratu berri duzun Bidean ikasia liburuan. Zein izan da ordaina?

A.U.- Bilakatu gaituzte etsai, eta tratatu gaituzte etsai gisa. Hori izan da gogorrena.

M.A.- Eta etsai gisa tratatu izanak esan nahi du, esate baterako, herri barruan isolamendua.

A.U.- Bai, hainbatentzat, bai. Baina hau ez da gertatzen... nik uste dut horregatik duela interesa —edo behintzat niri hala iruditzen zait— liburuak. Ez da Hondarribian bakarrik gertatzen. Iritzi desberdina duena etsai bilakatzea da euskaldunok berehala hartzen dugun jokaera bat, aitzakia edozein izanda ere. Niretzat liburuaren mamia hausnarketa da, horregatik du izenburua Bidean ikasia. Hasieratik banekien hau kontatu egingo nuela. Kosta zait 20 urte jakitea nola kontatu. Antzerki-obra bat neukan gogoan —oso argi oso argi— urte pare batean. Antzerki-obra horretan eszenatokian ikusiko zen gordeleku izan genuen etxe hura.

M.A.- Klandestinitatea.

A.U.- Klandestinitatea. Sukalde hartan aritu ginen plantxatzen gure arropak.

M.A.- Eta zuk zer ikasi duzu bidean?

A.U.- Ikasi dut nolakoak garen, ez nolakoak ginela uste nuen nik; ikasi dut gorrotoari aurre egiten; ikasi dut eragozpenen aurrean eusten; alaitasuna fabrikatzen...

M.A.- Hala ere, bazenekiten non sartzen zineten.

A.U.- Ez.

M.A.- Bazenekiten, ze ikusi zenuten zer gertatu zen Irungo San Martzialetan.

A.U.- Bai, baina ez gero zer gertatuko zen. Hor kontatzen da hasiera-hasieratik nola norbaitek esan zuen “ez dakizue non ari zareten sartzen”, eta ez, nik ez nekien eta gainera...

M.A.- Baina bazenekiten egon zirela irainak, bultzadizoak, ukabilkadak...

A.U.- Bai, bai. Baina horrek gero zer bilakaera izango zuen, ez. Nik Irungoa ikusi nuenean pentsatu nuen “ni ez naiz gauza hau aguantatzeko; nik hau ezin dut”. Gainera, etxera joan nintzen txundituta; eta esan nuen “ni ez naiz gauza gorroto hori nigandik 20 zentimetrora aguantatzea (sic = aguantatzeko); kuadrillak puskatuko zituela...

M.A.- Agurrak ukatuko zizkizuetela...

A.U.- Bai.

M.A.- Pertsona batek esatea alardearekin jakin duela zer den benetako beldurra deigarria egiten da.

A.U.- Hala da! Lehortzen zait eztarria zeharo, bihotzaren abiadura bizkortzen da pila bat, eta pentsatzen nuen... Halako batean esan nion neure buruari: “Ala, beldurra da!” eta bai, beldurra zen.

M.A.- Zuei leporatzen dizuetena da Kostako konpainiari baimena eskatu gabe egin zutenela jauzi Kale Nagusira.

A.U.- Bai, bai.

M.A.- Bortxaz, nahi baduzu.

A.U.- Bai, sartu egin ginen, generaman (sic = bageneramatzan) hiru urte baimenak eskatu eta eskatu; ez ziguten jaramonik egiten, eta orduan erabaki genuen sartuko ginela.

M.A.- Hau galderau akaso ez da erraza, baina nork eragotzi dizuete zuei alardean desfilatzea: Hondarribiko gizonetakoek, Hondarribiko emakumeek, erakundeek udaletik hasita.

A.U.- Nire iritzia da denetik bizi izan dugula. Lehenengoan, gizonak izan ziren; bigarreanean, emakumeak izan ziren, gizonak desfilatzen zeuden eta emakumeak izan ziren; hirugarrenean, Ertzaintza izan zen. Denetik ezagutu dugu. Orain, zergatik ez den kontua konpondu hainbeste urteren buruan, ba, funtsezko arrazoia politikoa da. Hasiera-hasieratik udalak egin zuen alde baten alde, pribatizatu zuen alardea. Eta hor, hori egin zutenean, hori izan zen maisu-kolpe bat. Ezin zen alardea pribatizatu udalak hori nahi izan ez balu.

M.A.- 20 urte behar izan dituzu.

A.U.- Ez da erraza. Ez nuen panfleto bat egin nahi, gainera, hasieratik esan nuen “hau ez da panfleto bat, hau idazle baten lana da”. Horren inguruan idatzi daitezke, eta idatziko dira, liburu gehiago, eta historiagileek egingo dute gero beraien lana. Lekuko guztiek ez dugu berdin... gauza berdina bizi; ez dugu berdin ikusi, eta ez dugu berdin kontatu.

M.A.- Arantxa Urretabizkaia, eskerrik asko.